

KIDEA, TALDEA ETA PROIEKTUAREN ZAINZA

Joxemi Zumalabe Fundazioa

Bideari edo prozesuari, hots, *nola* egiten dugun horri balioa ematea garrantzitsua deritzogu. Borroka bidea izateaz gain, Bidea ere borroka baita.

Militantzia amesten dugun jendarte eredu eraikitzeke garatzen dugun ekimen kolektiboa eta askatzailea dela pentsatzea da ohikoena. Baina herri eragileetan parte hartzen dugun kideok jendarte honetako parte garen heinean ezin dugu ziurtat jo jendarte eredu hau zeharkatzen duten zapalkuntzak ez ditugunik miltantzian ere erreproduzituko.

Hori horrela izanik, gure taldeen funtzionamendu eta kideen arteko elkarrekintzei arreta berezia eskaintzea garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, ez dugu posible ikusten adibidez, praktika eta jarrera matxistekin jendarte feministarik eraiki daitekeenik, edota jarrera arrazista edota homofoboekin jendarte anitz eta askea eraiki daitekeenik.

Parte hartzen dugun taldeetan kontutan hartzekoak diren hiru eremutan arreta jartzea interesgarria dela ulertzen dugu. Kidea, Taldea eta Proiektuan hain zuzen ere.

Talde baten bizitzan eta beraz, talde horrek izango duen eraginkortasun politikoan, taldeko kideen arteko harremanek uste duguna baino eragin handiagoa dute. Hortaz, taldekideen arteko harremana eta oro har, talde funtzionamendua bera, eremu pribatuko afera izatetik haratago afera politikoa dela aldarrikatzen dugu. Eta afera politikoa den heinean kolektiboki landu beharreko gaia dela ulertzen dugu.

Esan bezala, aipatu hiru eremuak, ezin ditugu eremu isolatu gisa ulertu. Batak bestean eragiten duela begi bistakoa da, hau da, kideak taldea egiten duen bitartean, taldeak kidea ere egiten du eta baita proiektua ere... baina proiektu politikoak, aldi berean, taldeak eta kideak osatzen ditu...

Militantzia eredu osasuntsu eta eraldatzaileen bidean, garrantzitsua deritzogu hiru eremu horien zaintzaren arteko orekak topatzeri. Talde bakoitzak bere ezaugarri, helburu eta kidegoaren arabera oreka horiek lantzeko etengabeko ariketa egiteari alegia.

Kide bakoitzak, talde eta proiektuaren baitako interes, gaitasun eta behar ezberdinak izango ditu eta Taldeak guzti horiei lekua egitea ezinbestekoa da. Dena den, Kideak bezala, Taldeak eta Proiektuak ere ezaugarri eta behar zehatzak izango dituzte. Behar guzti horiek identifikatzea eta kolektiboki lantzea da egiten ari garen proposamena.

Zertan datza KIDEAren zaintzak?

- Norbanakoen beharrizan bitalei arreta jari eta interes eta gaitasun pertsonalei lekua egitea
- Delegatzen ikastea eta aldi berean ardurak hartzen jakitea
- Norbanakoa ahalduntzea eta egoeraren arabera ezetz (edo baietz) esaten jakitea
- Espektatibak kudeatzen ikastea
- Gure emozioak taldean azaltzea eta lantzea: huts egiteari beldurra kentzea... lotsa edo

kontzientzia txarra ekiditea...

- Barruan ditugun kezak, zalantza eta arazoak taldean lantzea

Zertan datza TALDEAren zaintzak?

- Talde harremanei arreta eskaintzea eta talde bizitza osasuntsua sustatzea
- Bilerak, noiz, non eta nola egiten diren kontutan izatea
- Erabakiak modu parte hartzaile eta parekidean hartzeko gaitasuna jorratzea
- Rolak, ardurak eta egitekoak txandakatzea
- Taldekide guztiak protagonista izateko guztien iritzia kontutan izatea,
- Bilera eta ekintza formaletatik aparte dauden momentu eta harreman informalak esplizitatzea baina erabakigune ez bilakatzea
- Finean, Horizontaltasunaren bidean urratsak ematea

Zertan datza PROIEKTUAren zaintzak?

- Proiektu politikoa gauzatzea
- Proiektuak dituen beharrak identifikatu eta asetzea
- Proiektua aurrera eramateko beharrezkoa den pertsonen dedikazioa identifikatzea eta ostean, taldekideen dedikazioa zenbateakoa eta nolakoa izango den adostea